

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Ejemplar gratuito

326 Zb.
www.getxo.eus

>> Uztaila 2018



WANTED

**ORAIN DENBORA MUGARIK GABE,
ZURE PROIEKTUA NAHI DUZUNEAN
AURKEZTU DEZAKEZU**

GLOBAL TRAINING mugikortasun-beka

30 urtez azpiko gazteek (LHko goi mailako gradu edo lizentziatura edo diplomatura batekin, baita ingelesko B2 edo C1 mailarekin ere, kasu bakoitzaren arabera) 6 eta 9 hilabete artean lan egiteko aukera izango dute hitzartutako enpresetan, hainbat herrialdetan: EEBB, Txina, Argentina, Txile, Mexiko, India eta Europako herrialde askotan. Proiektuak oso bestelakoak dira eta horregatik askotariko profilak behar dira. Hainbat erakundek kudeatzen dituzte bekak (Garapen, UPV-EHU, Novia Salcedo Fundazioa...). Gazteak urrian abiatuko dira, baina lehenago hautatze-prozesu bat gainditu beharko dute. Horretarako uztailaren 16ra arte dute epea izena emateko. Argibideak: <http://garapen.net/becas-global-training-2018/index-eusk.php>, www.noviasalcedo.es/eu/becas-global-training-2018 eta www.ehu.es/eu.

160 Ikasiker beka unibertsitateko ikasleentzat

Euskal Herriko Hezkuntza sailak Ikasiker kolaborazio beken deialdia kaleratu du, 2018ko irailaren 1etik 2019ko irailaren 30era bitartean, beren kolaborazioa eman nahi duten unibertsitateko ikasleentzat Eusko Jaurlaritzak onartutako, eta Zientzia, Teknologia eta Berritasun Euskal Sarearen eragile diren hurrengo tokietan: Euskal Unibertsitate Sistemako Ikerketa taldeetan, Oinarriko Ikerketa eta Bikaintasun zentroetan (BERC), Osasun Ikerketa Institutuetan (IIS) eta Kooperatiba Ikerketa Zentroetan, Guztira 160 plaza daude eta eskaerak aurkezteko epea urriaren 1ean amaituko da. Informazio gehiago: <http://www.euskadi.eus/unibertsitateko-ikasleak-ikasiker-lankidetzak-bekak/web01-a3lagun/eu/>

Bi egonaldi artistiko Poloniako Wroclawen

Etxepare Euskal Institutuak bi sortzaile aukeratuko ditu Poloniako Wroclaw hirian egonaldi artistikoak burutzeko, Wroclaw Culture Zone (Strefa Kultury Wroclaw) erakundearekin duen lankidetzari esker.

Egonaldia irailaren 24tik azaroaren 18ra arte izango da eta aukeratu-takoek 2.000na € jasoko dituzte, bidaia eta ostatu gastuez gain. Lan egiteko hizkuntza ingelesa izango da.

Deialdia hiri-identitatean eta kulturaren interesa duten artistei zuzenduta dago, Wroclawen proiektu berri bat sor dezaten. Egonaldiak ezinbestean jasotako beharko du bertako herritarrekin *workshop* bat, eta egonaldia amaitzean, publikoari irekitako aurkezpen bat egingo da. Eskaerak aurkezteko epea uztailaren 10ean amaituko da. Informazioa: Donostiako Etxepare Euskal Institutua, 943 023 400 telefono zenbakian, etxepare@etxepare.eus eta <http://cort.as/-7dee>

Romoko Gaztelekuaren Programazioa GureGune gaztelekuak

Uztaila

Hilak 6, ostirala: ASANBLADA
Hilak 7, larunbata: IRTEERA: LASERGUNE
Hilak 10, asteartea, eta 15, igandea: TAILERRA: HORMAK MARGOTU
Hilak 12, osteguna: BIZIKLETEKIN IRTEERA
Hilak 13, ostirala: SUKALDARITZA TAILERRA: KULTURARTEKO JANARIA
Hilak 17, asteartea, eta 19, osteguna: TAILERRA: RAP TRAP
Hilak 21, larunbata: IRTEERA: ZINEMARA
Hilak 24, asteartea, eta 26, osteguna: TAILERRA: ALFONBRA
Hilak 27, ostirala: TXAPELKETA: FUTBOLINA
Hilak 28, larunbata: TXAPELKETA: JUST DANCE

Algortako Gaztelekuaren Programazioa GauEgun gaztelekuak

Uztaila

Hilak 5, osteguna, 18, asteazkena, eta 20, ostirala: LAGUNTASUNAREN HILABETEA
Hilak 7, larunbata: TXAPELKETA: DARDOAK
Hilak 11, asteazkena: MASTERCHEF: BASERRIKO PIZZA
Hilak 13, ostirala: TAILERRA: MAKILLAJE TUTORIALA + EDERTASUN KANONAK
Hilak 14, larunbata: MASTERCHEF: BASERRIKO HANBURGESA
Hilak 21, larunbata: IRTEERA: SURF
Hilak 24, asteartea: JOLASA: UR PUXIKEN GUDA
Hilak 26, osteguna: TOPAKETA: ASANBLADA
Hilak 27, ostirala: IRTEERA: IGERILEKUAK
Hilak 29, igandea: ZINEKLUBA



Lehiaketaren aurreko edizioa irabazi zuten gazteetako batzuk

Urte osorako ekimena izatera pasa da Abian "Wanted"-en beste edizio bat

Getxoko 140 gazte ingururen parte-hartzea izan duen *Wanted* ideia lehiaketaren azken bederlatzi edizioen esperientzia izan eta gero Gazteria Zerbitzuak eta Getxolanek lehiaketari eraberritzeko garaia iritsi zaiola erabaki dute eta urte osorako ekimena izatera pasa da.

Helburua da Getxoko 18 urte-30 urterako bitarteko gazteek urteko edozein unetan proiektuak aurkezteko aukera izatea, eta ondorioz, proiektua martxan jartzeko programak eskaintzen dituen baliabide eta zerbitzuak eskuratu ahal izatea.

Proiektuak mota guztietakoak

izan daitezke, esate baterako, antzezlan txikiak, performanceak, filma laburrak egitea, erakusketak, enpresa proiektuak, edozelako lehiaketak antolatzea, udalerrirako interesgarriak izan daitezkeen web orriak, blogak, etab. egitea, aisialdi jarduerak, hala nola ikastaroak eta tailerrak, gizarte arazoetan sentiberatzeko proiektuak, euskaren erabilera sustatzeko proiektuak, hitzaldiak bezalako dibulgaziozko proiektuak, eta abar. Hau da, orotariko proiektuak, berriak izan ala ez, baldin eta gure herriaren gizarte, ekonomia edo kultura aberasten badute.

Wanted programak aukeratu-tako proiektuak abian jartzeko beharrezkoak diren laguntzak emango ditu. Orotariko laguntzak eskainiko dira: 10.000 € arteko finantzaketa, aholkularitza profesional zerbitzuak, formakuntza zehatza proiektuak dituen beharrezkoetan, bide-laguntza zerbitzua eta, oro har, proiektuak gauzatzeko beharrezkoak diren baliabide eta zerbitzuak.

Parte hartzeko modua oso erraza da, hain zuzen ere, gazteria@getxo.eus helbidean interesatuek proiektua azaltzeko hitzordua eskatu behar dute mezu baten bitartez.

OPORRETARAKO TXARTEL ERABILGARRIAK

TXARTEL MOTA	ADINAK	BALDINTZAK	BALIAGARRITASUNA	PREZIOAK	ABANTAILAK
NAZIOARTEKO ATERPEKIDE TXARTELA	Gaztea: 14-29 urte Heldua: 30 baino nagusiago Familiarra: Unitatea + <14 seme-alabak Taldea: <18 begiralea (gutx. 10 perts.)	* NAN edo Pasaporte * Famili Liburua * Diruaren ordainagiria	Urte natural 1 luzapenaren egunetik	Over 30: 10€ Under 30: 5€ Gaztea-Gazte Txartela: 2,5€ Familiarra: 18€ Taldea: 16€ http://reai.com	Nazioarteko Aterpetxe Federazioko edozein nazioarte mailako Aterpetxeetan ostatu hartzeko
EUROPAR GAZTE TXARTELA	14 eta 29 urte bitartean	* NAN edo Pasaporte * Diruaren ordainagiria	30 urte bete arte	6 € http://www.gazteukera.euskadi.eus -en eska daiteke eta etxera bidaltzen dute 8-10 egunetan	Hainbat deskontu eta zerbitzu berezi: - Bidal aseguria - Garraioa - Dendak - Ekintzak - Zozketak - Doako Larrialdi zerbitzua bidaietan eta informazioa 24 orduz
NAZIOARTEKO TXARTELA 31 URTE BAINO GUTXIAGO (IYTC)	14 eta 31 urte bitartean	* NAN edo Pasaporte * Txartel tamainako argazki 1 * Diruaren ordainagiria	Urte natural 1 luzapenaren egunetik	11 € Erabat digitala	Hainbat deskontu eta zerbitzu berezi: - Garraioa - Ostata - Museoak, antzerkiak, zinema, ... - Mundu osoko leku historikoak - Doako Larrialdi zerbitzua bidaietan eta informazioa 24 orduz (ISICConnect)
NAZIOARTEKO IKASLE TXARTELA (ISIC)	Edozein ikasle, edozein adina, formazio edo jatorrikoa	* NAN edo Pasaporte * Ikasle izatearen agiriren bat (normalean, nahikoa izaten da kasuan kasuko ikasturtean ofizialki onartutako zentro batean egindako matrikula aurkeztea) * Txartel tamainako argazki 1 * Diruaren ordainagiria	Urte natural 1 luzapenaren egunetik	11 € Erabat digitala	Hainbat deskontu eta zerbitzu berezi: - Garraioa - Ostata - Museoak, antzerkiak, zinema, ... - Mundu osoko leku historikoak - Doako Larrialdi zerbitzua bidaietan eta informazioa 24 orduz (ISICConnect)
NAZIOARTEKO IRAKASLE TXARTELA (ITIC)	Ikastetxe ofizial batean irakasle gisa kontratatuta dagoen edonor	* NAN edo Pasaporte * Ofizialki onartutako ikastetxe batean irakasle izatea egiaztatzen duen agiria * Txartel tamainako argazki 1 * Diruaren ordainagiria	Urte natural 1 luzapenaren egunetik	11 € Erabat digitala	Hainbat deskontu eta zerbitzu berezi: - Garraioa - Ostata - Museoak, antzerkiak, zinema, ... - Mundu osoko leku historikoak - Doako Larrialdi zerbitzua bidaietan eta informazioa 24 orduz (ITICConnect)

* Karneta fisikoki izateko 6€ ordaindu behar dira. Baldintzak: ISIC karneta, ITIC edo IYTC eta argazkia
 * Txartel hauek egiteko informazio guztia www.gazteukera.euskadi.net web orrian eta Gazte Bulegoan (gaztebulegoa@getxo.eus edota 944.660.353) dago.